


*Ipuinak  
Olerkiak  
Bertsoak*



*Julene  
Azpeitia  
Lehiaketa 2016*



# Julene Azpeitia lehiaketa



2016. urtea

Argitaratzailea: \_\_\_\_\_



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento

Laguntzaileak: \_\_\_\_\_



■  
**Bizkaiko Foru  
Aldundia**  
Kultura Saila

■  
*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren  
Kultura Sailaren laguntza jaso du*



KULTURA SAILA

*Izenburua:* Julene Azpeitia Lehiaketa. 2016. urtea

*Azala eta barruko marrazkiak:* Imanol Larrinaga

*Argitaratzailea:* Durangoko Udala

*Maketazio eta fotomekanika:* Gertu. Oñati

*Inprimategia:* Gertu. Oñati

*Lege Gordailua:* SS-1424-2014

2016ko azaroa

HITZAURREA..... 7

*Olaia Albizu Gallastegi*  
*Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentea*

IPUINAK

ANBOTOKO MARI ..... 11  
*Luana del Hoyo Sandoval*

BEGI LAUSOAK..... 17  
*Izaro Erzilla Etxegibel*

LAZTAN SUABE ETA GOZOA ..... 25  
*Joana Sopelana Ibañez*

IRUDIMENAREN ZUBIAK..... 35  
*Aitor Marcos Basagoiti*

KLIK..... 47  
*Itzal Martinez de Luco Aranguena*

OLERKIAK

ZU ETA NI..... 61  
*Aner Gamiz Perez*

ZURE ZERBAIT IZANGO BANINTZ..... 65  
*Alvaro Rojo Delgado*

INFERNUA DUGULAKO NAHIAGO ..... 69  
*Irati Ruiz de Azua*

IPSUM INSANIS ..... 73  
*Iker Apraiz Solaguren*

HILETA MARTXA..... 77  
*Martin Loizate Sarrionandia*

## BERTSO PAPERAK

ALFERRAREN BERTSOAK ..... 83  
*Manex Roman Munitxa*

LANBIDEAK ..... 87  
*Ander Sarriugarte Garcia*

EDURNE ZURIENAK ..... 93  
*Txaber Altube Sarrionandia*

JAIOTZERAKO, HELDU ..... 99  
*Iñigo Legorburu Arregi*



## *hitzaurrea*

Kaixo denoi,

Entzunda neukan, Durangon idazlanen lehiaketa bat zegoela, baina aurten arte ezin izan dut joan Julene Azpeitia lehiaketaren sari banaketara. Ekitaldia benetan interesgarria izan zen.

Ez nekien Durangon horrenbeste ume eta gaztek idazteko zaletasuna zutenik. Beti uste izan dut gehienak kirolean aritzen direla, baina argi dago kultura ere interesatzen zaiela. Horretan ikastetxeek erantzukizun handia dute. Lehiaketa honetara aurkeztutako idazlanak ikusita, argi dago erantzukizun hori ondo baino hobeto betetzen dutela, alegia, euskal kultura bultzatzea.

Durangoko Udaletik, Julene Azpeitia lehiaketa babesten jarraituko dugu, aurtengo edizioan ikusi dudan moduan, Durangon idazle on asko daudelako. Tamalez, denek ezin dute irabazi, hala ere, idazlan guztiak dira maila onekoak eta guretzako denak dira irabazle.

Eskerrik asko idazlari guztiei.

*Olaia Albizu Gallastegi  
Euskara, kultura eta hezkuntza  
batzordeko presidentea*





*juleneazpeitia*

*lehia keta*

*2 0 1 6*



*ijmirak*



*Luana del Hoyo  
Sandoval*

Irabazlea 11-12 urte bitartekoen sailean  
Kurutziaga Ikastola

*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Anbotoko Mari*



Euri egun batean...

- Malen! Gutun bat heldu zaizu! -esan zuen Malenen amak.

- Oraintxe noa ama! -erantzun zion Malenek.

Gutuna hartu bezain laster, bere logelara joan zen, gutuna zabaltzeko zelo zuri beltza atera eta gero, irakurri egin zuen.

Gutunak hau jartzen zuen:

*Kaixo Malen, Anbotoko Mari naiz, eta gutun hau zuk bakarrik irakurtzea nahiko nuke. Istorio asko asmatu dituzte nitaz, baina hau da bizi izan dudan istorioa:*

*Txikia nintzenean, Anboto Oizen ondo-ondoan zegoen, eta ni, bi mendion aurrean zegoen zuhaitz bat nintzen.*

*Nik asko maite nuen Anboto, nire bihotz guztia okupatzen zuen, eta Oiz, berriz, ezin nuen ikusi ere!*

*Oizek, Anboto gorroto zuen. Beti zebilen Anboto zirikatzen. Baina egun batean, Anbotok hauxe esan zuen.*

*- Ezin dut gehiago zurekin! Beti zirikatzen zabilta!*

*Eta hortik haurra beti pasatzen zituzten orduak eztabaidan...*

*Momentu horretan, hauts magiko batzuk sentitzen hasi nintzen nire sustrai guztietan, eta bat-batean... Emakume eder bat bihurtu nintzen!*

*Natura guztia kontrolatzen nuen, orduan, Oiz eta Anboto banandu behar nituela izan zen nire lehen erabakia.*

*Esan eta egin, Oiz beste puntan jarri nuen eta Anboto bere lekuan geratu zen. Hori egin eta gero, landareak ureztatzen, haziak landatzen... ibiltzen nintzen egunero.*

*Baina bat-batean negua heldu zen, eta ez nuen aterpe egokirik, ezin nintzen etxe batera joan. Orduan Anbotok esan zidan berak zuela kobazulo txiki bat, eta aterpe moduan erabili ahalko nuela. Guztiz poztu ninduen, amets bat zen.*

*Negu guztia pasatu nuen Anbotoren kobazuloan. Hain nengoen pozik ze landareak zaintzea ere ahaztu egin zitzaidan: 200 lore baino gehiago hil ziren. Ze pena!*

*Anbotoko Mari izatea oso zaila zen, nekatuta heltzen nintzen kobazulora, eta hurrengo egunean egin behar nuen guztiaz pentsatzen hasten nintzenean, ezin nuen lorik egin.*

*Interneteko web batek nitaz dioena ere asko kaltetzen nau, eta txarrena da jendea ez dela konturatzen. Ez dakit zer egingo dudan.*

*Baina dakidana da zure animoekin zeozer lortuko dudala. Musu handi bat!*

*Gutunak Malen piztea lortu zuen: landareak ureztatza joaten zen ikastolatik atera ostean, amamaren ortuan haziak landatzen zituen eta apenas erabiltzen zuen internet.*

*Anbotoko Mari, Malenen esfortzuaz konturatuta, gutun bera bidaltzen hasi zen Euskal Herriko ume guztiei.*

*Ume gehienek betetzen zuten Marik esandakoa, eta hainbeste laguntzarekin gutxiago nekatzen zen; azkenean, Malenen eta gainerako umeen laguntzaz bere helburua lortu zuen.*









*izmirak*



*Izaro Erzilla  
Etxegibel*

Irabazlea 13-14 urte bitartekoen sailean  
Kurutziaga Ikastola

*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Begi lausoak*



Apirilaren erdia pasa dugu jada, eta udaberria orain dela hilabete hasi zen arren, gaur etorri da hain gogotsu itxaroten genbiltzan urtaroa. Ilea orrazten dizun haize lasai hori sentitu dut, txorien kantuak eta lore usaia eguzki izpien epeltasunean. Maite dut udaberria, urtarorik gustukoena dut, noski, baina aurtengo udaberria desberdina da, amak txikia nintzenean esan zidan 14 urte betetzen nituen udaberrian utziko zidala bakarrik mugitzen. 14 urte martxo bukaeran egin nituen baina udaberria ez da benetan etorri gaur arte.

Amari udaberria heldu dela pozarren esan diodanean beldurtu egin da, ez diot aurpegia ikusi, baina ahotsa aldatu zaio eta dardaraka sentitu dut bere eskua nire izter gainean. Amak nik baino beldur gehiago du nire bizitzagatik, tamalez, ez daki benetan zeinen ondo moldatzen naizen. Makila hartu eta kalera irten naiz, baina nire pausoeekin batera beste norbaitenak entzun ditud, tap-tap tap-tap, nireekin guztiz sinkronizatuta. Geratu egin naiz, eta pausu ezezagunak ere gelditu egin dira. Atzera begiratu eta ikusteko ahalmena izango banu, hortxe ikusiko nuke nire ama bere hitza bete ezinik, zapatutan janzten duen soinekoarekin, galtzerdi lodiak bere hanka finak estaltzen eta txaketa bakeroa soinean. Nire etxetik hamar pausotara aurrera eginez dagoen arbola hostoz beterik eta 5 urteko nire bizilaguna betiko moduan etxepean bere bizikleta urdinarekin jolasten. Mundua kolorezkoa dela esaten du jendeak, eta nik, ikusten ez ditudan arren, ez dut hori zalantzan jartzen. Nire bizilagunaren bizikleta urdina dela imajinatzen dut baina benetan ez dakit ze kolore den urdina. Itxuraz nolakoa den ez dakidan arren, urdina da nire kolore gustukoena, eta ez jende askoren kolore gustukoena delako, ez, kolore gustukoena daukat urdina udaberriko epeltasun eta lasaitasun hori adierazten didalako. Aitak dio ezetz, urdina hotzaren kolorea dela eta ez beroarena, baina horrek ez dauka zentzurik. Urdina hotzaren kolorea

izango balitz ez zen horren kolore maitea izango, hotza maite duen jende asko ez dagoelako. Esan nahi dut, jende gehiago dagoela urdina eta epeltasuna maite duena gorria eta hotza baino, ez denak noski, batzuk nahiago dituzte morea, berdea, beltza, zuria, arrosa... Beraiek oso erraz aukeratzen dute kolore gustukoena baina ez dute guztiz ezagutzen kolore hori, itxuraz bakarrik.

Baina ez dut atzera begiratu, zertarako? Aurrera jarraitu dut, bizikletan dagoen mutikoa gero eta hurbilago entzuten dut, azkarregi ari da hurbiltzen niregana, hurbilegi, eta entzuten ditudan zarategatik ez dabil oso ziur bizikleta gainean: hurbilegi sumatzen dut. Urduritzen hasi naiz niregana datorrelako baina ez dakit nondik, hurbilegi, hurbilegi dago. Umea aurretik datorrela ohartu naizenerako lurrian aurkitu naiz. Oraingoan amaren oihua argi entzun dut eta hurbildu egin da ni jaikitzen laguntzeko, baina ez naiz bere eskua topatzen saiatu, lurrian dagoen makila hartu dut eta altxatu egin naiz. Amari bakean uzteko eskatu diot txikia nintzenez egin zidan tratua non geratu den galdetuz, eta korrikan joan naiz. Parkera daraman betiko bidea jarraitu dut, baina oraingoan inoiz baino arinago noa, ez dakit zein den eskumatara hartu behar den lehenengo kalea, eta inguruko soinuek ere ez naute batere laguntzen: nire buruan pentsamenduak ozen entzuten ditut, ez didate inguruko entzuten uzten. Tratu apurtuak, amaren mesfidantza, kaleak, kaleak, kaleak eta kaleak. Galdu egin naiz. Makilarekin inguruak arakatu ditut eta esertzeko banku bat aurkitu dut. Bertan jesarri eta azeleratu zaizkidan taupadak lasaitu ditut gutxinaka-gutxinaka, begiak itxi ditut eta udaberria dastatzen hasi naiz berriro, ahaztua nuen eta.

Bat-batean nire hanketatik zerbait dabilela sumatu dut, nire orkatilak laztanduz bere ilearekin. Zaunka egin du eta besoetan jaso dut, maitemindu egin naiz. Udaberriak baino berotasun handiagoa ematen didalako, besoetan dudala segurtasun ikaragarria ematen didalako, kili-kiliak egiten dizkidalako nire zama miazkatzen duenean eta pozik dagoelako, beti pozik bere isatsa alde batera eta bestera etengabe mugituz. Zama ukitu diot behin eta berriz, aurkitu nahi ez dudana zerbait bilatuz. Eta hemen, banku batean eserita konturatu naiz behar dudana ondoan daukadala, amaren bilurrik gabe aurrera egiten lagunduko didana. Txakur bat.





Eguzkiaren izpiak ia ez ditu igartzen eta eguraldia freskatu egin da. Gaua heltzear dago eta etxerako bidea hartu dut bide batez nire txakur berriari ibilbidea erakusteko. Atea zabaldu dut eta gurasoak sentitu ditut nire zain, beraien arnasako urduritasuna entzuten dut. Hitz egiten hasi dira:

- Noa, sentitzen dugu. Beti izan zara gure alabatxo kuttuna eta. - aitortu du amak- Tratu hura egin genuenean ez nintzen ohartu horren azkar haziko zinenik eta nire babesba uneoro behar duzula sinetsi izan dut. Orain badakit benetan zure kabuz moldatzeko gaitasuna daukazula eta horregatik barkamena eskatu nahi dizut kalera bakarrik irteten utzi ez zaitudalako.

- Maite zaitugu eta zaila da maite duzun norbait aske uztea -jarraitu du aitak sentibera.

- Eskerrik asko. Pixka bat hazi naizela egia da bai, eta kalera bakarrik irten naiteke, baina tira, oraindik ez ditut Durangoko kale guztiak guztiz ondo ezagutzen eta horretarako laguntxo bat ekarri dut, kalean topatu dut eta jaberik ez duela iruditu zait.

- Baina nor da hau? Ai ama! zein polita den! -amari ikaragarri gustatzen zaizkio txakurrak, beti gura izan du etxean bat edukitzea, pozarren hartu du beraz. Txakurra hartu eta sukaldera joan da txakurrari jateko zerbait ematera.

- Aita, kontatuko didazu ipuin bat?

- Ipuin bat? ez al zara ba nagusitxo?

- Batak ez du beste kentzen...

- Argia zara gero, bueno, kontatuko dizut bat. Sartu zaitetz ohera.

Txikia nintzenean aitak gauero kontatzen zizkidan ipuinak. Batzuetan irakurri egiten zizkidan eta beste batzuetan momentuan bertan asmatzen zituen niretzako ipuinak. Non egongo ote dira berak asmatutako ipuin horiek? Pena ematen dit bere momentuan inork ipuin horiek idatzi ez izana. Zenbat emango nukeen ipuin guzti horiek liburu batean gordeta egoteagatik, berriro ere aitatxoren fantasia istorio horietan murgiltzeko.





Bazen behin, itsasertzean paseatzea asko gustatzen zitzaion neskatila bat. Egun batean, beti bezala are umeletik aurrera egiten zuela, eguzkia gero eta beherago ikusten zuen, zeru zabala gorriz margotuz. Neskatila arduratzen hasi zen, itsasoa eguzkia irensten zebilela pentsatzen zuen eta berak ez zuen horrelakorik nahi. Eguzkia gero eta txikiago bihurtuz zihoan, itsasoan gero eta gehiago barneratuz. Oraingoan ura ere gorri laranja koloreztatua zegoen, eguzkia itsasoan guztiz desagertu zen arte. Neskatila beldurtu egin zen eguzkia desagertu zela pentsatuz eta orduan zera okurritu zitzaion: itsasoak eguzkia jan bazuen, irakiten egon beharko litzateke. Uretara hurbildu eta eskua kontu handiz sartu zuen, baina ez, itsasoak hotz jarraitzen zuen, betiko moduan. Geroztik horretan pentsatzen pasatzen zituen asteko egun guztiak, gauero itsasoak eguzkia jaten zuela ikusten zuen bere logelako leihotik, baina hurrengo goizean mendien magaletik berriro bueltatzen zela. Azkenean, Lurraren ezkutuko sekretuaz kontu egin zuen: etengabe eguzkiaren jira-biran ari dela.

Gustatuko litzaidake aita, begi lauso honek izango ez banitu, kolore gorriko ilunabarrak ikustea.

Betazalak oharkabean joaten zaizkit beherantz, astiro-astiro jausi eta azkenean begiak itxi eta ametsetan murgildu naiz gustura. Ikusi ezin ditudan gauzekin ametsetan, esnatzean inoiz gogoratuko ez ditudan ametsetan. Zenbat amets dituen giltzapean ene oheak, zenbat!



*ijmirak*



*Joana Sopelana  
Ibañez*

Irabazlea 15-16 urte bitartekoen sailean  
Kurutziaga Ikastola

*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Laztan suabe eta gozoa*



Uda heltzear dago, eta gutxika-gutxika eguzkia ikusten hasita gaude. Etxeko atea zabaltzen hasi zaizkigu niri eta nire etxeko kideei. Izpi goxogoxoak heltzen zaizkit niri, baina, agian, nigandik urrun dagoen beste bati ez, etxeko atea astiroegi zabaltzen direlako, eta ni lehenengo ilaran kokatuta nago. Hain dut gustuko berotasun sentazio hori, hain gustuko...! Eta horrela bizi gara gu: gure bizitzaren etapa luze bat ilunpetan, zati txikitxo bat mundua ezagutu nahian, baina etxetik irten gabe, etxeak eta guk dugun lotura bitxi batek ez gaituelako etxetik irteten uzten; eta beste zati luze-luze bat mundutik biraka, nora joan jakin ezean. Haize bolada bakoitza aprobe txatuz egiten dugu bidea, eta itxaropen handiz euria egin ez dezan, nahikoa baita ur tanta bat gu zauritzeko, akabo gure bidea. Bi irtenbide ditugu kasu hauetan, lurrean blai-blai eginda geratu bizitza guztia bizi izan gabe, edota gure azkeneko esperantzak batu eta gu bezalako hainbat sortu.

Guk ez dugu aukeratzen noiz izango garen libre, hori bizitzak berak aukeratzen du, edo argi goak izanda, “munduko klimak”, edo hala dio nire alboan dudan lagun bitxi honek. Teoria berri bat duela dio. Ordua zen. Nork sinetsiko du irudizko artazi batzuk mozten dutela hain lotura maitagarri hau? Ez da posible, bere teoriak dio guk ezagutzen ez dugun mundu miresgarri horrek, guk bezala, etapa batzuk dituela, batzuetan hotz, beste batzuetan bero, eta horrela bizitza guztia. Horregatik hiru hilabete bakarrik ditugu momentua bizitzeko, bero egiten duenean bakarrik bizi gaitezkeelako, hotzak beldurtu egiten gaituelako. Prozesu guzti horri “munduko klima” esaten dio.

Gu aske bizitzeko beste aukera bat, lehen ezagutzen ez genuen beste batek ere badu, izaki bizidun batek erabaki dezake. Aski da izaki batek



bere zulo handi horretatik irteten zaion izugarrizko haize bolada batek gu bultzatzea suabe-suabe, laztan goxo batek astindu bat ematen digun bezala, gutako askoren loturak askatzeko. Baina batzuetan batzuk bakarrik dute zorte hori. Ezagutu ditut ere gure aurrean jarri diren izaki batzuk eta ahotik barik, aho gainean dauden bi zulo txikiagoetatik haizea bota dizkigutenak, baina ez dutenak lortu gure lotura haustea, haiek doministiku egitea deitzen dute, zein izen arraroa ezta?

Eta ordua bazen gero. Pena handia ematen badit ere, ordua heldu zaigu gutako askori. Izaki bizidun gazte batek eskuekin hartu du gure bizilekua, gure etxe maitagarria. Gaztea dela badakit, handiagoak ikusi ditudalako, eta hau txiki xamarra da. Etxearen enborra apurtu eta bere altuerara eramán gaitu denok, zulo handi hori haizez bete du gutxika-gutxika, eta kolore gorrixka duten ezpainak, borobil itxura hartu dute eta zulutxo txikitxo bat itxi dute haien artean. Bat-batean, lehen esan dudán bezala, laztan suabe eta goxo batek nire gorputz txikia astindu bezain pronto, askatasuna eman didán izaki hori nire azpian geratu zaidala konturatu naiz. Inoiz sentitu dudán gauzarik miresgarriena da.

Gutxika-gutxika gero eta handiago sentitzen hasi naiz, gero eta mundu gehiago ikusten hasi naiz. Izaki gazteak gora begiratu du eta gu heltzen saiatu da baina larregi urrundu gara, ez gaitu inoiz ere ez harrapatuko, ze zorteá geurea. Konturatu naizenerako, nire kide guztiengandik aldentuta nago, haiekin elkarrizketa txiki bat edukitzeko denborarik ere ez dugu izan, ez dugu elkar entzuten eta. Bizitako hainbat momenturekin geratu beharko naiz, jaiotzatik orain arte bizitakoak, eta nola ez, lagun bitxi horren teoriarekin badaezpada ere.

Orain baditut galdera batzuk erantzun gabekoak, adibidez, zer da egin behar dudana orain? Zelan jakingo dut zein den nire helmuga? Edota, zein den helburua bizitza honetan?

Etxean nengoenean galdera bat egiten banuen erantzuna jarraian jasotzen nuen, gainera hainbat erantzun posible, ez bakarra. Ez nago ohituta galdera bat egitera eta nire buruak bakar-bakarrik erantzun behar izatera. Baina beno, bidaiarekin jarraitu behar dut, eta galdera horrek bidaian zehar erantzutea nahiko nuke.



Behera begiratzan dudan bakoitzean, kostalde eder eta polit bat ikusteko gai naiz, olatuek harkaitzen aurka jo egiten dutenean sortutako soinu lasaigarri horiek, plas! urrun urrunetik entzun daitezke. Itsasoko uraren kresal usaina datorkit, eta barru barrura sartzen zait, gorputzeko atal guztietara heltzen da usain hori hotzikara ikaragarriak sortuz, ikusi dudanez ez ditut nire 5 zentzuak kontrolatzen. Nire gorputz osotik sentitzen dut zerbaitek ukitzen nauenean, hain gustuko ditudan haize bolada horiek, zerbait dastatzen dudanean, baina ez dut ezer ere dastatu oraindik, zerbait usaintzen dudanean, lurrazaletik gora igotzen den lore usaina, zerbait ikusten dudanean, mundu zoragarri hau esate baterako eta soinuak entzuten ditudanean, ume bat behar duen guztia jan ez duenean.

Kostaldea urrun eta nire atzean itxi dut dagoeneko; putz egin didate? Agian, nork daki, nik ez. Orain ikusten dudana oso desberdina da, harriz edo material desberdinez egindako eraikin handiak eta txikiak daude, izaki bizidun asko irten eta sartzen dira handik. Herri horrek Lekeitio izena du, irakurtzen badakit eta, etxean ikasitako gauza guztietatik hori bat da, irakurtzen ikasi genuela, hori eta koloreak noski.

Herri horretatik urrundu naizenean izen hori jartzen zuela seguru nago, baina erditik moztuta marra gorri bat du, agian Lekeitiotik irteten ari naiz? Seguruenik, gainera eraikin handi eta txiki horiek ez ditut ikusten orain, eta gainera berriro ere paisaia aldatu egin da, orain, denbora luze daramat dena berde kolorekoa ikusten, bai berdea, kolore argi-argi bat, batzuetan apurtxo-bat ilunagoa. Arbola mota bat edo beste batek kolore desberdina dute, eta batzuetan gorrixka kolorea izan dezakete, landareekin berdina gertatzen da, horregatik koloreak aldatu egiten dira baina beti berdinak ikusten ditugu. Nire begiek Oiz mendia ikusten dute aurre-aurrean, lasai, berriro ere irakurri dut izen labur eta arraro xamarra. Horrexegatik dakit ze mendi den hori.

A ze leku zoragarria! Hiru hegal zuri dituen enbor baten gainean bueltak ematen astiro-astiro, naturak berak eraikitako ingurune berdea, animaliaz bete: tximeletak, bi hegal dituztenak, kolore desberdinez apainduak; txori desberdinak, batzuk beltzak, beste batzuk marroiak, zuriak, etab; saltoka dabilen untxi bat, marroi kolorekoa, belarriak tente-



tente, eta puntetan kolore beltzak apaintzen ditu belarriak, eta gorputzeko marroi kolorea baino argiagoa den puntutxo batekin buztan gainean. Hainbat eta hainbat animalia.

Oiz mendia gainetik igaro dut eta jaisten hasi naizenean berriro ere suabe-suabe indar batek bultzatu nau behera. Oraingo honetan ez dut ez itsaso kolperi entzun ez eta mendi handiak gainetik igaro behar, oraingo honetan lau-laua da dena. Berde kolorea oso nabaria da, baina itxura hotza du. Bero ikaragarria egiten du bai, baina ez zaizkit gehiegi atsegiten lautada hauek. Beste herri baten sartu naiz, beno, hiri batean, alegia, herri handi baten. Oso herri zabala da, ez dago aldapa bat bera ere, honek erakusten dit zein desberdinak izan daitezkeen hain hurbil dauden leku bi, adibidez Lekeitio, eta oraingo honetan ikusten dudan hiria, mmm... Gasteiz!

Horixe, eta hiri hau Gasteiz dela adierazteko era berezi baten jarrita dago. Parke baten erdian dago jarrita, belar faltsu bat erabili dutela sumatzen dut, belar artifiziale. Nire ustez, horren azpian egitura sendo bat jarri dute eta gainean belarra, baina ez nago ziur, hain erreala ikusten da, hain polita. Hori bai, parke horretara heltzeko hainbat eraikin saihestu behar ditut, ez pentsa bidaia hain erreza egiten ari zaidanik, ez, ez, lehen despistatu egin naiz eta ia-ia zuhaixka baten harrapatuta geratu naiz.

Parkean gizon zahar batekin kontaktuan jarri naiz. Gizontxo horrek besoa luzatu eta eskua zabaldu du, eta bertan pausatu naiz minutu batzuk bere aurpegi zimurtua begietsiz. Niri begira geratu da bera ere, begiak eguzkitako betaurreko urdin batzuekin estalita daude, baina gai naiz eguzkiaren islarekin begiak ikusteko, kristala nahiko mehea eta argia delako. Gai izan naiz ikusteko bere begiak urez beterik zeudela, ur gazia hain zuzen ere, malko negarrak deitzen dira. Entzun dudanez, ni eta nire kideak norbait gomutaraztea eta pertsona hori hunkitzeko gai gara, horregatik uste dut gizon hori malko negarrez beteta dituela begiak. Astiro-astiro putz egin dit eta berriro ere hegaz irten naiz.

Indarrak ahultzen ari zaizkit, eta bidaia amaitzen hasi zaidalakoan nago, eta bat batean, euria hasi du. Ez dit pena ematen, egunen baten gertatu beharko zen, eta nahiko bidaia luzea eta ederra egin dut orain damutzeko,



horregatik gora begiratu dut eta euri tanta baten zain geratu naiz. Segituan ur tanta handi-handi bat nire gainera jausi da min egin gabe, blai-blai eginda nago, eta poliki-poliki lurrera jausten nagoela konturatu naiz. Burua behera begira geratu zait, eta lur lehor eta menditsu bat ikusi dut. Zein arraroa den hain leku lehor batean euria egitea, baina klimak horrelako gauzak ditu, espero ez duzun momentuan gertatzen dira. Lurrean oso poliki pausatu naiz eta, egunak igarota, lurrak irentsi egin nau maitasun handiz.

Listo, bizitza laburra eta zoragarria izan da, baina ikusitako toki guztiak behar bezala maitatu eta gozatu ditut. Orain pozik nago, badakidalako nire heriotzarekin beste bizidun handi bat haziko dela. Eta bidaia honetan gauza interesgarri eta berezi bat aurkitu dut, leku guzti horiek batzen dituen sentimendu bat aurkitu dut, leku horietako pertsona askok partekatzen duten sentimendu bat. Eta horiek batuta, leku handi eta batu bat sortzen dutena, Euskal Herria.

**Gutuna:** *nire bizitzaren zati luze bat ezagutu duzue, batzuek jakingo duzue zer eta nor naizen, zertan datzan nire bizitza eta zein den etxe deitzen dudan hori, baina beste batzuek ez. Hasteko, landare baten hazi bat naizela esango dut, eta etxea deitzen dudan hori ni estaltzen nauen landare horia edo laranja kolorekoa*





da. Uda heltzean, nire etxe horren petaloak jausi egiten dira eta ni eta nire kideak agerian geratzen gara. Nire edo gure itxura, polit-polita da, buruko hile zuriak bezalakoak diren lumak ditugu, eta burua eusten duen enbor txiki bat dugu gris kolorekoa. Haizearen indarrak edota izaki bizidun batek putz egiten digunean askatutako haizeaz baliatzen gara mundutik bidaiatzeko. Lurrera jausten garenean, urarekin kontaktuan jarri garelako edo haize faltagatik, hazi guztiak bezala, lurrean landatzen gara eta nahiko elikatzen garenean, hori edo laranja koloreko landare berri bat bihurtzen gara, eta horrela berriro ere ni bezalako beste hazitxo asko bizi daitezke.





*ijmirak*



*Aitor Marcos  
Basagoiti*

Irabazlea 17-18 urte bitartekoen sailean  
Frai Juan Zumarraga Institutua

*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Irudimenaren zubiak*



Gau beroa zen hura maiatzerako. Etxeko zapatilak jantzita nituela jaitsi nituen eskailerak, zaborra eskuan nuelarik, betiko lez. Portaleko atea zabaldu eta giro ederra sumatu nuen, etxera sartzeko gogo kentzen zuten gauetakoa zen huraxe. Zaborra bota eta etxerantz bueltatu nintzen halere. Bueltako bidean kartel batek arreta deitu zidan. Taberna batekoa zen, pare bat kale harago besterik ez zegoena. Ezagutzen nuen lekua. Ostegun gau guztietan, zortzi eta erdietan “Jam Session” delakoak egongo zirela zioen. Hori zer zen ez jakin arren musikarekin zer ikusia zuela interpreta zitekeen kartelagatik. Itxura ona zeukan egia esan. Erlojua begiratu nuen eta zortziak eta hogezi ziren. Gero etxerako zapatilak nituela konturatu nintzen. Oraindik joateko ideiarekin zalantzaka nenbilela etorri zen nire burura etxetik irteterakoan entzundako esaldia: “Platerak garbitzea tokatzen zaizu bueltan, Aitor”. Etxera joatea izango zen hoberena. Beti haserretzen zen hurrengo goizean garbitzen banituen. Eskailerak igo eta etxera sartu nintzen.

Sukaldeko argia piztuta zegoen eta telebistaren hotsa entzuten zen urrunean. Sukaldera sartu bezain pronto ikusten dut, ez baita ezkutatzeko modukoa, edonori bizitzeko gogoak kenduko zekizkion plater eta kazuela mordoa. Denak harraskan pilaturik, Pisako dorreari ospea kentzeko prest. Umorea lurretik nuela, amantala jantzi eta lanari ekin nion. Xaboiak igurtzi, uretatik pasatu, xaboiak igurtzi, uretatik pasatu...

Amaitu nuenerako eskuak ximurrez beteta nituen, usain nazkagarri hori ere zuten, trapu umel usaina. Eskuak garbitu eta sikatu ostean

egongelara joan nintzen. Atea zabaltzean ikusten dut nire emazte maitea, edo berarengandik geratzen dena. Sartzerakoan ez zuen begirada telebistatik altxatu ere egin, pittin bat ere ez. Izan nuen egunaz mintzatzen saiatu nintzaionean, bahituta moduan zeukan telenobela ez zuela ondo entzuten erantzun zidan. Amaitu ostean konta niezaiokeela kontatu beharrekoa. Ez nekien zergatik jarraitzen nuen saiakerak egiten, betiko kontua zen jada telenobelaren aitzakia. Beraz, telebistari so jarri eta arin pasa zedin zelarik nire nahi bakarra, isilean geratu nintzen. Kartelean pentsatzen ari nintzela, “Jam Session” horiek zer ziren mugikorrean begiratzea otu zitzaidan. Jakin mina piztuta nuen ordurako. Interneten ulertu nuenez, zuzeneko musika zen, karaoke antzeko bat baina musika tresnekin. Ogiak legamiarekin gora egiten duen moduan, interesak gora egiten zuen nigan.

Telenobela amaitzeaz zegoela musu bat eman eta ohera joan nintzen, logurak jota. Ez nuen gainera, han segitzeko inongo interesik. Berak han jarraitu zuen amaitu arte. Ez nuen ohera sartzen sentitu, lo egongo nintzen dagoeneko.

Hurrengo goizean, iratzargailuaren soinu gogaikarriak atera ninduen lotik. Lehenengotan beste aldera begiratu eta ez entzunarena egin nuen arren, segituan jaiki behar izan nintzen. Ilunetan armairutik arropa atera eta komunean jantzi nintzen. Bera ordu bete beranduago sartzen zen lanera eta ez zidan gelako argia pizten uzten. Gelako atea zabalik geratzen bazen ere, muzin egiten zidan. Txilio bat edo beste ere entzunda nuen arrazoi horregatik. Umore txarrez esnatzen zenetakoa zen bera.

Gosaldu eta lanera bideratu nintzen autoan. Opel zahar bat genuen aspalditik, ez nuen kotxe berri bat erosteko lain irabazten, bizitzeko lain izatearekin pozik egon behar nintzela entzun ohi nuen. Hainbestetan entzundakoa sinestera behartuta moduan sentitzen nintzen. Martxan jarri eta irratia dezente entzun zedin berriro sintonizatu behar izan nuen. Albisteak entzuten ziren. Bakoitzak aurrekoak baino gehiago kentzen zidan gizatasunean nuen fede apurra. Nigan fede mantentzea lan nahikoa izango ez balitz bezala.





Nahiko gertu aparkatu nuen autoa. Atea zabaldu eta goizeko freskurak aurpegia aldatu zidan. Kremailera goraino igo eta erlojuan garaiz heldu nintzela segurtatzen nuen bitartean bideratu nintzen fabrikara. Irudi zaharkitua zuen benetan eraikinak, aspalditik zuen berritzeko premia, baina egoera hobetzeko esperoan zeuden. Hobetuko zelakoan. Eraikina nire erlazioaren metafora izan litekeela pentsatu nuen, egoera hobetzeko esperoan geunden gu ere agian.

Laneko arropa janzten nuen bitartean lankideak solasean zebiltzan. Aurreko eguneko partiduari buruz ari ziren. Emaidza esan zidaten, baina nik irratian entzunda nuen. Partidua zelakoa izan zen jakin nahi nuela esan nien, bazekiten nire etxean futbola ez zela aspalditik ikusten. Partidu ikargarria izan zen nonbait, ez ikusi izanaz pixka bat damutu nintzen. Bigarren aldiz pentsatzean ordea banekien ez nuela txintik ere ez esango, eztabaida sailhesteko soilik.

Egunak desberdinak ziren izan, baina lana betikoa zen. Makinak martxan jarri, piezak neurtu, leku batetik bestera eramanez, makinak garbitu... Giroa ere betikoa zen, bakoitza bere gauzetan zebilen eta jabea agertzen zenean soilik usain zitekeen izerdia. Era berean, jabearen presentzia oihuen sinonimoa zen, horretara bakarrik zetorrela ematen zuen. Hasieran lan ona iruditu zitzaidan arren, zazpi urte pasa ondoren gogaitzen hasia nintzen. Monotonoezia zen niretzako.

Bazkalordurako tabernara joaten ginen, han bazkaltzeko garagardo bat alboan genuela. Tabernako bokatak itzelak ziren. Eguneko momenturik onena izaten zen zenbait egunotan. Giroa onagoa ohi zen, denbora asko batera egon direnen berbaroa. Urteak neramatzan lanean gehienekin.

Gazteena zegoen hizketan, hainbeste ordu lan egin ostean ez zuela ligatzera joateko gogorik izaten zioen. Saiatu zela baten baten, baina logurak asaldatzen zuela eta elkarrizketaren haria galtzen zuela. Azkenean etxera logura itzelarekin heltzeaz gain, kalabaza mordoarekin ere heltzen zen. Emaztea geneukanok ez genekiela zer nolako zortea genuen ere esan zuen. Berak bi hile zeramatzala larrua baten ere jo gabe. Barre egin nuen, negar ez egitearren botatzen diren barreetakoa. Esango banio nik zenbat neraman horrelakorik gabe...



Aitortu beharra dut hasiera hasieran bikoteko bizitza itzela zela, haiek urteak! Txortan egiten genuen denbora geneukan guztietan. Baina ez hori bakarrik, bizitzeko gogoak geneuzkan. Egia da bazegoela gaur eguneko egoerara eramán gintuen gertakizuna. Ezkontzatik urte zoriontsuenak igarota, ume bat izateko grina sartu zitzaigun. Berari niri baino gehiago, egia esan. Nik ez ditut umeak hain gustuko, baina nire barnean ondo bilatuz gero, topa nezakeen aitatasuna. Arazoa saiatzen hasi eta lau hilabete aldera agertu zen. Gu saiatzen ginen arren, ereindakoa ez zen ernetzen. Normala zela ziurtatzen nion, baina proba batzuk egitea erabaki genuen. Bertan agertu zen bera antzua zela, bere umetokia ez zegoen ume bat izateko prest, eta ez zen inoiz egongo. Harrikada ikaragarria beretzat, depresioaren ertzean egon zen. Animatzen saiatu nintzen, adopzioaren aukera jarri nion mahai gainean, niri ez zitzaidala axola. Bera itxita zegoen jada, kanporako ateak goitik behera zarratuta zituen. Hala ere, hobetu zen denbora tarte baten ondoren, baina geroztik ez gara aurreko situaziora heldu. Sexuari buruz, eduki ohi genuen noizbehinka gauzak baretu zirenean, baina badirudi azken aldian nagiak partida irabazi duela. Nik, pare bat aitzakia txar entzun ostean amore eman nuen. Horrelaxe neramatzan, bederatzi hile inguru, nire zakila tente ikusiko nuen egunaren zain.

Lanera bueltatzea tokatu zen baita: jornalaren beste erdia betetzera joan behar. Bigarren zati hau beti zen aspergarriena, esnatuago geundelako nonbait. Pasatu ziren orduak eta azken uneak atzera kontu bihurtu ziren. Denok geunden erlojuari so txirrinak jo zuenean. Egiten geundena alde batera utzi genuen berehala. Bihar beste egun bat izango zen.

Etxera heldu nintzen, egun hura ez zela onenatarikoa izan pentsatzen, jota nengoen. Sartzerakoan, begirada finkatu nuen atarian genituen argazkietan. Han zegoen nire gaztaroko argazki bat, hamasei urte nituelarik ateratakoa. Irribarrea ahoan eta etorkizunak zer ekarriko zidan irrikaz itxaroten, ona izan behar zelakoan.

Lauso gogoratzen nituen urte haiek, goxotasun lausoz. Bizitzeko gogoak belarrietatik irteten zitzaizkion gazte horren zantzuak ez nituen inondik topatzen orain. Ispiluan begiratu nintzen, egunero begiratzen nintzen esperantzaz, eta egunerokoa zen errealitatearen ukabilkada jaso



nuen. Lokatzetan hondoratzen utzia nuen nire burua, inor laguntzeko gai ez zela jakinda. Bizitza zirkuluetan bueltak ematea bihurtu zen niretzako, egunak aurrera egin ahala nik beti berdina ikusten nuelarik. Artaldeko ardi bat gehiago besterik ez nintzen, artzainak erakutsitako bidea hartzen zuena txintik esan gabe. Ez zen ez, hamasei urterekin, argazki horretan irudikatzen zuen etorkizuna.

Iritsi zen hurrengo osteguna egutegira, nire buruan zegoen oraindik “Jam Session” haietara. Ez nuen ezer galduko galdetzeagatik, baina alde zurretik esan nezakeen ezetz esango zuela. Edonork esango luke agorafobia pittin bat zuela kalera joatea aipatzen nionean. Domeketako paseoa zen etxetik kanpo egiten zuen bakarra aisialdi denboran.

Hala ere, ezetza entzutea seguruena zen arren, aipatu nion ideia. Berak nekatuegia zegoela esan zidan, telenobela ikusi eta ohera joatea besterik ez zuela nahi. Argi geratu zitzaidan. Oraingoan, zaborra jaistera bideratu nintzen, baina kaleko zapatilak soinean nituen.

Tabernara heldu nintzen bederlatziak hogeit gutxitan, giroa sumatzen zen jada. Sartu nintzen barrura, eta barran bertan jesartzea erabaki nuen. Eszenatokia zirudien hura ondo ikusten zen handik. Garagardo bat eskatu nuen lehenengoz. Ingurura begiratzean konturatu nintzen han zegoen

jendearen adina nirearen antzekoa zela: gazteagoak espero nituen. Bazeuden ere nire moduko gizon bakarti batzuk. Nire moduko egoera baten egon zitezkeela bururatu zitzaidan, koitaduak, ez nion inori nire patua desio.

Orduan antzeman nuen mugimendua eszenatokian. Mikrofono bat jartzen ari ziren, eta aulki bat ere. Zerbitzaria alboan nuela aprobetxatuz galdetu nion ia zertaz zihoan kontu hura. Berak azaldu zuenaren arabera, eszenatokira edonor igo zitekeen kantatzera edo musika jotzera. Nik ea jendea animatu ohi zen galdetu nionean entzun ziren lehen notak. Zerbitzariak begiradarekin keinu bat egin zidan erantzun modura.

Burua eszenatokira zuzendu nuen eta hantxe zegoen: hasieratik iruditu zitzaidan ederra. Bazuen begietan jakin-mina sortzen zuen sakonera hori eta bere azal ilunari leuntasuna igartzen zitzaion urrunetik. Ile beltza motots batean baturik zuen, kopetatik pare bat adats jauzten zitzaizkiolarik. Momentu hartan, jaungoikoa bera ikusten duenaren aurpegia nuen. Urte askotan ezagutu nuen edertasunaren deskripziorik zehatzena zen.

Saxofoia jotzen ari zen. Nik ez dut musikari buruz asko jakin inoiz, ez musika tresnarik jotzen, ez solfeorik. Halere, musika asko entzun nuen nire bizitzan eta kanta hura Charlie Parkerrena zen. Ez nuen gogoratzen kantaren izena, baina gaztaroko mila oroitzapen ekarri zizkidan, denak batera. Nola ez, nire aita ere oroitu nuen, ordu luzeak pasatu ohi genituen eskuratzen zituen diskoak behin eta berriz entzuten, behin eta berriz entzutekoak ziren eta.

Aho bete hortz jarraitzen nuen, garagardoa alde batera utzia nuen nahigabe, nire arreta guztia bereganatu zuen. Notak airean bidaiatzen zuten belarriek harrapatu eta gozatu zitzaizten. Bata bestearen atzetik irteten ziren, bakoitzaren garrantzia azpimarratuz, baina banaezinak izanez. Esan nezake kitzikagarria izatetik gertu zegoela momentua, ilea tentetzen zitzaidan eta begiak ezin altxatu nengoen atzamar dantzari haietatik.

Amaitu zen kanta eta txalo zaparrada jaso zuen emakumeak, orduantxe zintzilikatu zitzaion irribarrea aurpegian, orduantxe jauzi





zitzaidan zerua gainera. Irribarre politagorik ez dut ikusi geroztik. Altxatu eta konturatu baino lehen saxofoia gorde eta teloi atzean desagertu zen. Ni babo aurpegiarekin nengoen oraindik, liluraren burbuilan flotatzen inoiz baino gusturago. Irtetea lortu bezain pronto galdetu nion zerbitzariari ea nor zen emakume hori. Berak ez zidan erantzuten jakin. Garagardoa amaitu eta etxera joatea zen egin nezakeen bakarra. Liluraren osteko sentipen hori ilunetan argi bat pizten dizutenean sentitzen denaren antzekoa zen. Dena txarto enfokatuta sentitzen nuen. Agian denbora gehiegitxo neraman ilunetan bizitzen.

Hurrengo astea pasatu nuen ostegunaren zain. Grisa zena koloredun bihurtu zen eta bizitzeko gogoen kutsu bat topa zitekeen nigan. Nire emazteak hainbatetan galdetu zidan zergatik nengoen bat batean hain pozik, mesfidantzaz galdetzen zuen. Nik horrela erantzuten nion: “Ilunetan bizi nintzen, Amaia! Orain argitan bizi naiz”. Arraro begiratzen zidan arren apur bat pegatuko zitzaiolakoan nengoen.

Ostegun goiza heldu zen, eta ni, ohetik altxatu nintzen amets goxoak izanda. Neska harekin egin nuen amets, bere azal eta begi ilunekin eta bere atzamar dantzariekin. Horren ondorioz agian, altxatu nintzen zakila tente nuelarik. Denbora asko zen ez nuela horrela ikusten, eta ospatu beharra sentitu nuen. Duxara sartu nintzen eta txorrotaren azpian irudimenari hegan egiten utzi nion, kanpaiak entzuten ziren bitartean.

Lanera joan eta izerditan blai amaitu arren, gogoz egin nituen egin beharreko denak. Lanarekin hasi nintzenean egiten nituen bezala. Lankideak harritu egin ziren haiek ere, galdetzerakoan, antzerako erantzuna jaso zuten.

Bat batean, burura etorri zitzaidan hura: eta berriro ez bazen agertzen? Hara joan eta bere arrastorik ez banuen aurkitzen, zer egingo nuen? Urduritu egin nintzen, beste edonor agertzen bazen ez zen espero nuena izango. Berriro kolore grisetara bueltatzeak goibeldu egiten ninduen. Hala ere, joan behar nintzela erabaki nuen, zortea nire aldamenean eduki nezakeela pentsatu nuen, behin bakarrik bazen ere.

Heldu zen ordua eta urduritasunak gora egin zuen, zaborra eskuan giltzak hartu eta etxetik irten nintzen. Lasaitu beharra nuela sumatu nuen,





bestela dezepzioak gogor joko zidan. Nire buruari konbentzitzen saiatu nintzen, bera agertzen ez bazen ere ez zela nire mundua jauziko. Nagusitxoia nintzela horrelako gauzetarako.

Nolanahi ere, garagardo bat eskatu nuen bezain pronto atzazalak jaten aurkitu nuen nire burua. Aurreko asteko leku berdinean nengoen, baina hamar minutu arinago heldu nintzen. Bera gogoratzen saiatu nintzen, eta bere kanta. Hotzikara bat sumatu nuen gorputz osoan. Egia zen urduri nengoela eta agian txarto pasatzen ari nintzela, baina zin egin nezake azken aldian ez nintzela momentuotan baino biziago sentitu baten ere ez.

Orduan bera agertu zen, oraingoa ilea solte zeramalarik baina ahaztezina zen aurpegi horrekin. Jesarri eta saxofoia atera zuen bere zorrotik. Laster hasi ziren doinu haiek irribarreak pizten, ileak tentetzen, sentiarazten. Oraingoa John Coltranen “Equinox” kanta entzuten zen. Soinu bakoitza zelan sentitzen zuen ikustearekin soilik, nire barnea ukitzeko beste zen. Begiak itxita pasatu zuen kanta osoa. Nik ere ixten nituen, kantak iluntasunean margotu zitzaizkizaten notek zituzten kolore guztiak. Isiltasuna heltzean zabaldu nituen, bera bizkarrez zegoen jada, teloi atzean murgiltzen.

Hilabete oso bat pasatu zen. Ostegunen zain egon ohi nintzen eta ostegunero liluraren atarera inguratzen nintzela sentitzen nuen. Nire emazteak ezin zuen sinetsi esaten niona eta beste emakume batekin nenbilela aurpegiratzen zidan. Egia zen beste emakume bat zegoela baina ez nuen berarekin inoiz berba egin. Teloi atzera joaten zenean amaitzen zen gure erlazioa. Hausnartu ostean pentsatu nuen agian esfortzu bat egin behar nuela eta berari inguratu. Eta zer elkar ezagutzea erabakitzen bagenuen?

Supermerkatuan nengoen, asteazkena zen eta emazteak bidali ninduen erosketak egitera. Karroa bete eta ordaintzera zuzendu nintzen. Errenkada izugarria zegoen, laburrena zirudiena aukeratu eta han paratu nintzen. Begirada altxatzean, ezin sinetsirik, bera ikusi nuen. Gizon garai batekin zihoan eta beste lerroan ipini berri zen. Ez zuen soinean eszenatokian eramanez ohi zuen irribarrea, baina ez zuen edertasunik galtzen hala ere. Ilaraz aldatzea erabaki nuen, bere ahotsa entzuteak konbentzitu ninduen. Bertara hurbildu nintzen begiratzen zeudenen harridurarako, ilara



laburrena itxi eta luzeenera bainindoan. Behin gerturatuta belarria findu nuen. Ahots zakarrez esan zuen: “Gaur platerak garbitzea tokatzen zaizu, gogoratu”. Ahotsak Amaia berarena ematen zuen. Irribarre baten arrastoak bilatu nituen bromatan ari zirela sinetsi nahian.

Ez. Momentu hartan jauzi ziren eraikita nuen paradisuko zutabeak. Ihes egin zuten koloreek nire bizitzatik eta zerua sutan jarri zitzaidan. Lokatzak traga nezan erregutu nuen. Izerdia edonondik irteten zitzaidan eta gogo bakarrak ihes egitekoak ziren. Bihotza erbesteratuta sentitzen nuen. Han falta ziren bakarrak, apokalipsiaren bost zaldunak ziren.

Ez gutxietsi beraz, irudimenaren indarra; nire bizitza aldatzeko lain izan baitzuen eta zurea aldatuko zuen, aukera bat emango bazenio. Irudimenak merezi baino, zuk baituzu merezi. Zure buruari aukera berri bat ematea izan ohi delako, irudimenari aukera bat ematea.

Aitortu beharra dut gainera, badudala partekatu nahi nezakeen sekretutxo bat, ez da egi edo arau apurtu ezina izan, baina badu zer erakutsi. Lortu izan diren gauzak, lehenago irudikatuak izan dira. Imajinatzea baita lorpenen lehen pausua.

*ijmirak*



*Itzal Martinez de  
Luco Aranguena*

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean



*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Klik*



Lehenengoa.

*“Troposferan”.*

“Klik”. Sukaldeko leihoan dagoen euli madarikatu hura bere sakelakoaren pantaila distiratsuan, betiko geldirik, bizigabe, azaldu da.

Amari musu eman eta bere irribarrerik faltsuenarekin kaleratu da, esne apurraz nahastutako kakaoa katiluaren oinarrian geratu delarik. Lainotuta itzarri da eguna, hiria, mundua. Patrikatik plastikozko zorro ttipi bat atera du ibiltzen doala. Atzamarrez, belar lehor batzuk hartu eta, mingainaz paper erdi garden hura bustiz, zigarro mehe bat egin du. Etxe alboko dendako propaganda daraman metxeroarekin piztu eta kea agertu da astelehen honetako paisaia grisean, bere begien aurrean dagoena inguratuz, difuminatuz.

Berandu doa klasera, betiko legez. Zarata handirik atera gabe, libre geratzen den -eta arkatzez eta boligrafoz egindako marrazkiz estalita dagoen- mahaian eseri da, maisuaren begirada indiferentearen aurrean. Irakaslearen diskurtso etengabea murgilduta daude bere kideak, bera gosalorduko euliaz oroitzen den bitartean. “1492an Kristobal Kolon izeneko gizonak ... ez dakit zer ... ez dakit zenbat ... Pinta, Niña eta Santa Maria ... indigenak ...” hitzak entzuten ditu, eta hitzak soinu bihurtu dira, eta soinuak euliaren hegalean mugimendu. Begiak igurtzi eta arretaz entzuten saiatu da berriro. “Eta hitzak ikusi ahal izango balira?



Argazkia mereziko luke ikuskizun horrek!” otu zaio amaitzen ari den historiari buruzko hitz burrundara hura alde batera utzita.

Kalean berriro. Hiri bustia agertu da oraingoan bere begien aurrean. “Klik”. Haur baten gomazko bota gorriak putzu bat zapaldu eta tantak airean banatu ditu, eztanda batek objektu puskak banatzen dituen antzera. “Zer gara gu, bada, aspaldi hasitako bidaia baten maleta puskak ez bagara ...” esan dio bere buruari, argazki hura gorde ostean.

“Aurkariaren aurrean nagoenean, ez dut ezertan pentsatzen, eta nire arnasketaren, bihotz taupaden eta barneko tentsioen melodiari eutsiz mugitzen naiz.” esan zion tabernariak aurreko astean. Sentsazio hori argazki batean islatzeko helburuarekin gerturatu da gimnasio hartara. Odolak utzitako burdin herdoilduaren, izerdiaren, listuaren eta sentimendu desberdinez beteriko hainbat arnasketen usainek atmosfera berri bat osatzen dute lokalean. “Adrenalina da mundua jaio zenetik dagoen drogarik preziatuena” bota du bere alboan eserita dagoen gizon zahar batek, begi distiratsuez mutiko batek zaku gorri bat kolpatzen ikusten duen bitartean. “Klik”. “Klik”.

Etxerako bidean, auzoko gozotegiaren aurretik pasatu eta aitaren gogokoak diren kremazko opiltxo batzuk ikusi ditu. Dozena erdia erosi eta dendako atea zarratu dela esaten duen kanpaitxoak soinu banda ipini dio gozogile ilegorri eder horrek hatzetan geratu zaion krema apurra mingainaz kentzen duen irudiari. “Klik”. Etxeko atea zabaldu aurretik egur zati batzuk hartu ditu sua pizteko. Afaria prestatzen hasi da egurrak erretzean uzten digun berotasuna lagun duela. “Piiii. Arrasti on. Gaur ez zara gure saiora etorri, ondo zauden jakiteko deitu dizut, baina ez didazu hartu. Beno ... ea bihar elkar ikusten dugun. Zerbait behar izatekotan esadazu. Ondo izan. Piiii.” Psikologoak telefonoan utzitako mezuak inbaditu ditu etxeko gelak. Hasperena. Harrikoa egin eta kremazko opiltxo bat jan du, gauaren iluntasuna errepidean dantzan ari den bitartean. Amari eta aitari musu bana eman ostean, ohera sartu da.

“Desajuste. Duelo. Paranoia. Depresión. Trauma.” psikologoaren hitzek esnatu dute. Dutzako txorrota zabaldu eta bertan sartu da, lurrun eta euri soinu horren erraietan barrena, hitz horiek bere buruan duten bolumena



jaitsi nahian. Bainugelako ispiluan, senak agintzen duen bizirauteko saiakera eginez, eulia dago, hegalak ur lurruna kondentsatzearen ondorioz erdi itsatsita dituela, mugi ezinik. Txorrotapetik atera eta sakelakoa hartu du. “Klik”. Eskuaz ispilua garbitu eta bertan ezaguna egiten zitzaion irudi bat azaldu da; behin haur zoriontsu bat izan zen gaztearen irudi zimurtua, ile busti nahasiduna, begi inguru belztuak dituena, aspalditik lo ordu ugariren gabezia garunean metatzen joan zaiona eta, une honetan, harridura aurpegiz begira ari zaiona. “Klik”.

Gerra gordinik bizi izan ez dugunez, gure guda psikologikoa dela irakurrita du borroken inguruko liburu batean. Depresiorik bizi izan ez dugula, eta, beraz, geure bizitza dela gure depresioa. Eta, bizitzeari eusteko, une esanguratsuak gordetzea erabaki du berak, argazkietan unibertso honen amaigabetasunarentzat ezer ez diren segundo horien kopia bat, alegia.

Markarik gabeko zapatila zuriak lotu, jertsearen txanoaz burua estali eta kalera doa berriro, irudi bihurtutako segundo horien kopiak egitera. Tabernan sartu eta iluna bezain mingotsa den garagardo bat eskatu du barran. Tabernariak irri egiten dio. Ezpain ertzeko zirrikitu gorriak eta masailetan dituen ubeldurek bere denbora-pasarik gogokoena salatzen dute. Begi ertzetik neska bat ikusten du bere alboan, barran jesarrita, telefonoari begira. *Facebook*-etik *Whatsapp*-era -eta alderantziz- dabil berak garagardoari lehenengo tragoa eman dionetik. Barreka ari da, hatzak pantailan zehar arin mugitzen dituen bitartean. Jaten ari den sandwichari argazki bat atera eta bidali egin du, metro batera, kilometro batera edo munduko beste puntan dagoen mugikor batera helduko dena, eta neskaren erreakzioaren arabera pertsona batek errealitate izoztua den argazki hori ikusi ote duen jakingo dugu. Ingurura begiratu eta guztiak daude berdin, pantailari begira, albokoak egongo ez balira bezala, beste orbita batean murgildurik. “Lehen jendea tabernetan ezagutzen zenuen, elkarrizketa interesgarriak zein txorakeriaz jantziak eduki zenitzakeen, pertsonak lokalean zeuden bai fisikoki bai mentalki. Orain ordea, -dio tabernariak hasperenak irribarre erdi horretatik ihes egin dion bitartean- hemen daude, baina ez osorik. Askotan mutiko berberak etortzen dira, eta elkarren alboan eseri, baina ez dute inoiz hitz egin, ez dute bata

bestearen ahotsa ezagutzen. Baliteke askok, elkarren artean “txateatzen” aritzea eta pantailan agertzen zaizkien hitzak ondokoarenak direla ez jakitea.” Melankoliaz atera zaizkio hitzak gure boxeatzailari, garbitu berri dituen edalontziak trapu txuri batez lehortzen dabilela. “Klik”.

Garagardoaren aparrak eraztunak uzten ditu edalontzian, eta kondentsatutako ur tantak goitik behera labaintzen doaz kristalean zehar, bata bestearekin elkartuz, lodituz, eta pasatzen diren lekuetatik aztarna leun eta distiratsua utziz, margolan bat sortzen ari diren pintzelen antzera. Tabernariak telebistan esku pilota partidua jarri du, eta, gure protagonistak, bere tragoak balio zuena baino diru gehiago utzi du barraren gainean; hainbat forma eta koloretakoak diren txanponak, egurraren aurka kristal hautsien zarata ateratzen dutenak. Tabernariari begiradaz agur esan dio eta lokaletik irten da. Biriketako airea ahotik atera du eta kea dirudi ... Hoztuta dago hiria oraingoan. “Hoztuta bai hiria eta baita haren paretan artean ezkutaturik bizi diren hiritarrak ere” pentsatu du. “Arima ahotik irteten ari zaiela dirudi” esango luke bere amak, plaza une hartan ikusiko balu. “Klik”.

Enparantzako tabernatik hogeita hamar bat urte dituen tipo bat irten da, katilu txiki bat eskumako eskuan dardarka daramala. Kafe usaina hedatu da girora eta katilutxo zuriari sugarren mugimendua imitatzen duen lurruna dario. Lokaleko leihopean utzi egin du eta urduritasunez tabako paketea eta metxero bat atera ditu txamarratik. Hotzak gorritu egin dizkio eskuak, sudurra eta belarriak.

Urpean egongo balitz bezala bizi da gure pertsonaia, ahotsak, zaratak eta irudiak urrun nabaritzen ditu, bolumen baxuan eta enfokatu gabeak. Arnasteko, sentitzen duena adierazteko, komunikatzeko eta bere inguruarekin benetako harremana pizteko zailtasunak izan ditu azken bolada honetan. Ez du negar zein oihu egin zuen azkeneko unea oroitzen, automatikoa jarrita dabil mundutik. Psikologoa kezkatu dauka, eta egunero uzten dizkio mezuak etxeko telefonoan, baina alferrik.

Gai zientifikoak jorratzen dituen telebistako kate horietako bat ipini du. Ahots misterioitsu batek unibertsoaren amaigabetasunaz hitz egiten du, ordenagailuz egindako planeta erraldoi batzuk, izarrik distiratsuenak eta



koloretakoak diren hautsezko hodeirik ederrenak telebistako pantailan agertzen diren bitartean. Belztasunik gordinenean esekita dagoen bola txiki batean mikrobio batzuk baino ez gara esan du ahots horrek, eta eztarrian korapilo bat egin zaio. “Bizirik egoteak, azken finean, ez du zentzurik. Ez gara ezer. Arazoak sortzen eta irensten dituzten mikrobio batzuk baino ez. Belztasunak edonoiz eta edonola suntsi gaitzake, eta ezingo genuke ezer egin hori ekiditeko” esan dio bere buruari. Halako batean, gezurrezko kamara hura ilargian geratu da, hautsez, harriz eta kraterrez osatutako bere lurzoru grisean. Gure planetari begira dago kamera, informatikaz egindako ilargi horretatik. Soinu bandak protagonismoa kendu dio ahotsari eta gurea dela uste dugun Lur planeta biraka agertzen da. Han, ehunaka kilometrotara dagoen gazta zati horretan, ba ote du axolarik gozotegiko neska ilegorri ederrak krema hatzekin dastatzeak? Zer axola izango dute putzuek, zigarroek? Zer axola izango du adrenalinak, borrokek, odolak, diruak? Eta arazoek?

Egongelako sofan itzarri da, telebistako pantailan tele-denda agertzen den unean. Etxeko leihoak garbitzeko imanez egindako aparatu bat saltzen dute, oso ohikoa den “ez dakit zenbat koma laurogeita hemeretzi” euroan, eta unean bertan deituz gero, labana joko liluragarria oparitzen dute. Zeinek ez du nahi, bada, horrelakoren bat?

Bigarrena.

*“Grabitate”*.

Balet dantzaria ispilura hurreratu da. Bere maisuak pasadan astean inoiz ikusi duen aurpegirik tristeena duela esan zion ... eta hala da.

Txikitan hasi zen dantzatzen. Bere publikoak beti izan du aburu bera: “aurpegiarekin adierazten ez duena mugimendurekin eta musikaren bitartez adierazteko dantzatzen du horrek”. Baina ez da egia. Bost axola dantzari honi zerbait adierazten duen, publikoari zerbait sentiarazten dion edo ez. Berak birak maite ditu. Etengabe jiratzea, etengabe bere begien aurrean dagoen mundua mugitzea, desagerraraztea, nahastea. Ikastolan entzunda du belarri barruko kanaletan zehar dagoen likidoa mugitzen dela bueltak ematean, orientazio eza eta desoreka pairatuz.





Txikitan ere beste ideia bat piztu zitzaion; mundu honekin loturaren bat zuela, baina ez zekiela zein zen. Urteak pasa egin dira eta oraindik bere buruari egiten dion galdera da hori. Bitartean biraka pasatzen ditu eguneko hainbat ordu, bere inguruarekin duen harreman hura -minutu batez bada ere- hautsi nahian.

Etxe aurrean duen zelaitxoan zorabiatu eta jausi egin da, belarren artera, lurrera. Ez du minik hartu, eta begiak zabaldu egin ditu, irudien nahasketaz gozatzeko prest. Zuhaitzetako adarrak espiral batek irentsiko balitu bezala mugitzen ikusten ditu, eta hodeiak, eta txoriak ... Konketari tapoia kendu eta ura irensten duen antzera irensten ditu espazioak hain mundutarrak diren irudi hauek. Esku bat altxatu du, bere burua ere irentsi dezan, baina alferrik. Espiralaren abiadura murriztuz joan da gelditu arte ... berriro ere.

Burua apur bat altxatu eta mutil bat ikusi du, sakelakoarekin argazkiak ateratzen. Hurbileko zuhaitz batean hainbat txori elkartu dira eta orkestra bat osatu nahian ari direla dirudi. Euren txioen artean mutilak argazkiak ateratzen dizkie, soinuak harrapatu nahi izango balitu bezala.

Kalean auto dezente dabilta une honetan. Semaforoa gorri dago, eta guztiak ilara batean itxaroten daude, metalezko suge erraldoi koloretsu baten gisara. Gidarietako batzuek telefonoa begiratzeko aprobe txatu dute; beste batzuek, ordea, zigarro bat pizteko. Semaforoak kolorea aldatu du, berdez jantziz. Ilaran dagoen lehenengo gidaria mugikorrari begira dago, eta ez da kolore aldaketaz jabetu. Bat. Bi. Hiru. Lau. Bost. Sei. Zazpi. Zazpi segundoko pazientzia izan dute ilaran dauden beste gidariak, eta lehenengoa mugitzen ez zela ikustean, batzuk besteak baino agudoagoak ziren klaxonak entzuten hasi dira. Zaratak zelaitxoko arbolaren adarretan dauden txoritxoak izutu egin ditu, euren kantua moztuz, eta gehienak hegan hasi dira, ihes eginez. “ Neuk ere hegan egin ahal izango banu ... txori baten antzera ihes egin ahal izango banu ... ” pentsatu du belarretan etzanda jarraitzen duen gure dantzariak.

Kaletik bikote bat ikusten du elkar musukatzen, eurena den haur ilehoriari globo gorri batek eskuetatik ihes egiten dion bitartean. ‘ Klik ’ bat entzun du sakelakoarekin argazkiak ateratzen dituen tipoa dagoen

aldetik. Umea korrika hasi da puzgarriaren atzetik, baina haize bolada batek gehiago goratu du eta sokatxoa urrunegi geratu zaio. Bere lagun gorritxoa espaziorantz igotzen ikusten geratu da, triste xamarra zen aurpegia ipini eta negar batean hasi da. Maitasunezko burbuilatxoan zeuden bere gurasoak eszenaz jabetu eta mutikoa lasaitzen hasi dira, besarkatuz, euren alkandorak semearen malkoekin bustiz, beste bat erosiko ziotela aginduz.

Bitartean txoriak adarretara itzuli dira, eta dantzariak hodeietan barrena doan globoa begiratzen du, aske dagoen puzgarri gorri hura, espazioak irentsi egingo duena, urruntzen ... Bere begi berdeak itxi egin ditu eta irudimenari atea zabaldu dio, “klik” ugari entzuten dituen bitartean. Bere hankak soka batez harri bati lotuta, bere gorputzak puzgarri baten antzera airean flotatzen duela begiztatu du. Eskuekin soka askatzen saiatzen da, hatzak odolez bete arte. Desesperazioz lotura apurtzen saiatzen da, espazioak irentsi dezan bere gorputza, gora egiteko, hegan.


Begiak zabaldu ditu eta zelaian etzanda jarraitzen du, dagoeneko puntu gorritxoa zen globoa desagertu delarik. Zutunik jarri eta ostera ere biraka hasi da, eta biraka nabaritu ditu bere barruak, bere erraiak, bere garuna, belarrietako likidua eta bere bihotz izoztua. Bere albora hosto marroi eta lehorra jausi da. “Hau da naizena” esan dio bere buruari, minez.

Hirugarrena.

*“Jai gintuzten” A. Lertxundi*

Dilatazio gelan dago tabernariaren emaztea. Bederatzi hilabeteren ostean, azkenean, hainbeste maite izango duen haurtxoa jaiotzear dago. Emakumea izerditan blai dago, uzkurketa konstanteek eragiten dioten mina garrasi urdurien bidez adierazten. Erditzea prestatzeko saioetan hainbat ariketa ikasi zituen, eta horiek praktikan jartzen saiatzen ari da, sentsazio deserosoak baretzeko.

“Oraindik ez” esan dio duela hogeita minutu gelan egon den emaginak. Bere bikoteari begira dago eta azken honek uneoro bekokian musuak ematen dizkio, duen beldurra ezkutatu nahian.



“Piiiiiii. Egun on. Mesedez, hartu ezazu telefonoa. Kezkatuta nago, sesio ugari galdu dituzu azken asteotan, eta behintzat ondo zauden jakin nahiko nuke. Beno, badakizu non nagoen, etorri. Piiiiiii”. Psikologoaren gaurko mezuak esnatu egin du argazkilaria. Nazkatuta dago.

Arropa jantzia zuela geratu zen lo atzo, ohe gainean. Begiak igurtzi eta sukaldarantz abiatu da, gosaltzeko asmoarekin. Koilara hartzean zerbait ikusi du tiraderan, eta eskua luzatu du hartzeko. Aitak gordeta zuen pistola da, estreinatu gabea. “Seinale ona da erabili ez izana” pentsatu du berak. Praken atzetik sartu du eta jertseaz estali du. “*Rocknrolla*” filmaren hasierarekin gogoratu da, eta *Black Strobe* taldearen *I’m a man* kantuarien erritmora dantzatzen hasi da, esnea berotzen duen bitartean.

Katiluaren oinarrian kakao apurra esnearekin nahastuta geratu da, konketan. Euli bat leihoan dago, geldirik, isilik. Mugikorra mahai gainean utzi du oraingoan, eta argazki galeriaren atala zabalik utzi du. Jertsearen txanoa burutik kendu du etxe atzeko lorategira joatean. Han geratu dira ere, mahai gainean, aste bete plater baten gainean daramaten kremazko opiltxo bi, musu ematen dien amaren eta aitaren argazki handien aurrean.

Baleteko dantzaria bere lokalean dago, entseguan. Ispiluan bere figura biraka ikusten du, buelta bakoitzeko bere ingurua gehiago nahastuz. Gaur ez du gosaldurik, bere zorabioa handitzeko eta luzatzeko asmoz. Lokaleko leihotik, penaz, neska batek gure dantzariaren mugimenduak behatzen ditu, bere hanka finak eta bere gorputz lirainaren melodia. Lodia dela diotelako ez da dantzaria masailetatik behera malkoak irristatzen zaizkion kanpoaldeko neska hau.

“Orain bai, aurrera. Bagoaz erditze gelara!” esan du oraingoan emaginak. Arrapaladan eraman dute alboko gelara, ohatilan. Indarra egiteko modua eta arnasteko irizpideak ematen dizkio emakumeari, gizonak eskua heltzen dion bitartean. Hainbat bultzadaren ostean, emaginak haurraren burua ikus dezakeela dio. Minak beldurra ordezkatu du, eta maitasunak mina.

Hori gertatu bitartean, hiriaren beste puntan, dantzariak bueltaka jarraitzen du, hanka baten puntaren gainean, bere kide guztien aurrean.



Piano joleak pieza ederra aukeratu du oraingoan; *Yann Tiersenen* baltse hunkigarrietako bat.

Argazkilaria etxe atzeko lorategian dago, zeruari begira. Dokumentalean ikusi zituen planetak, izarrak eta mila koloretako hautsak imajinatzen ditu hodeien eta zero urdin horren atzean. Begiak itxi egin ditu eta sakon arnastu du. Ezkerreko eskuaz praken atzean daraman pistola hartu eta balak dituela ziurtatu ostean, kanoia buruaren alde batean jarri du.

Une horretan dantzaria lurrera erori egin da. Piano joleak melodia eten egin du. Kolpe garrantzitsua hartu du eta gorritz koloreztatzen du odolak egurrez egindako zorua. Aurreneko aldiz, irribarrerik zoriontsuena izanen du aurpegian konortea berreskuratzen duenean, loturarik eta mugarik gabeko kontzientzia maila eskaseko bidaiari horretatik bueltan datorrenean.

Momentu horretan ere, erditze gelan haur txiki baten negarra entzun da, amaren azkeneko garrasi ahularekin batera. Medikiak dena ondo dagoela ziurtatu duenean, eskuoihal leun batekin inguratu du jaioberria eta amari eman dio. Mundura jaio den umetxoak amaren eta aitaren musuak jasotzen ditu etengabe, bere esku txikiak aurpegiaren inguruan mugitzen dituen artean.





Lorategian utzi dugun pertsonaiari pelikula guztien amaieran esaten duten esaldietako bat agur gisa idatzi beharko lukeela datorkio burura kanoiaren hoztasuna nabaritu duenean, baina gaurkoan ez da poeta sentitzen. Bere burua hodeiak eskalatzen ikusten du, atmosfera bere eskuekin urratzen, plazentatik unibertsoaren handitasunera jaiotzen. “Klik”.

*Aerkiak*



*Ander Gamiz Perez*

Irabazlea 11-12 urte bitarteko en sailean

Landako eskola

*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Zu eta ni*



Agian munduarentzat ez zara inor,  
baina niretzat mundua zara  
Beti momentu txarretan eta onetan,  
elkarrekin egongo gara.

Txikitatik kostatu zait esatea  
zugatik zer sentitzen dudan,  
baina orain babestuko zaitut  
egunez egun, leku guztietan.

Zu munduan bakarra zara  
bakarra nire munduan  
eta orain zurekin beti,  
udan edo neguan,  
udazkenean edo udaberrian,  
urtarrilean edo abenduan,  
itsasoetan edo mendietan,  
eta zurekin, infinitura.





*Herkiak*



*Alvaro Rojo Delgado*

Irabazlea 13-14 urte bitartekoen sailean

San Jose - Jesuitak ikastetxea

*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Zure zer bait izango banintz*



Zure zati bat izango banintz  
malkoa izatea erabakiko nuke

Zure barrutik hasten delako  
eta zure kanpoaldean amaitzen delako

Zure masailetan bizi direlako  
eta zure ezpainetan hiltzen delako

Baina ez malkoak ez inork  
daki zutaz sentitzen dudana

Zure osagarri bat izango banintz  
ezpainetakoak izango nintzen

Egunez egun erabiltzen duzulako  
zure ezpain fin-fin eta txiki txikietan

Beti  
beti zure ondoan egongo naiz ni

Beti, beti, beti  
Nahiz eta momentu baten amaitu,  
denbora horrek balio du

Beste inork baino  
gehiago maitatuko zaitut  
gaur, bihar eta beti





*Serkialak*



*Irati Ruiz de Azua  
Olaso*

**Irabazlea 15-16 urte bitartekoen sailean  
Kurutziaga Ikastola**



*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Infernua dugulako nahiago*



Etorri, hurbildu  
eta esadazu  
berriro ere  
lotsa gabe  
niri gustatzen zaidan bezala,  
goxo-goxo belarrira  
zergatik naizen berezia  
zergatik gogoko nauzun  
zergatik nauzun nahiago  
hainbeste aukeren artean.  
Gogoraidazu  
zergatik nagoen zurekin  
zergatik nagoen hemen  
zure alboan  
zergatik ez nagoen  
infernua ez den  
beste lekuren batean  
hobeto, askeago, libreago.  
Eta esadazu  
zergatik naizen ni hain zu  
eta zergatik zaren zu  
hain ni  
Esaidazu, mesedez  
gogoratu, dakidan arren  
zergatik dudan infernua nahiago,  
zergatik eragiten diogun hauspoari  
behin eta berriz  
gelditu gabe  
Esadazu  
zergatik garen deabruak.



*Serkialdi*



*Iker Apraiz  
Solaguren*

Irabazlea 17-18 urte bitartekoen sailean  
Frai Juan Zumarraga Institutua

*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Ipsium insanis*





Aditu nitzake,  
haizearen poesia,  
xiringen kantu berezia.

Amnesia.

Aditu nitzake,  
haizearen poesia,  
paretaren kontra jota erori den,

Kupidoren gezia.

Darwinen hipotesia,

borroka, frenesia,  
anestesia.

Buruaren eta gorputzaren

arteko sintesia:

ezintasuna,

hipokresia.

Ni naiz gabezia,

galtzeko abilezia,

ni naiz gabezia,

aurkitzeko trebezia,

azken eresia.

Ni naiz presoa,

ni naiz hesia.

Psikoanalisa,

eromena, neurosia.

Bizio bizia,

enegarren gaindosia

besoa zuloz josia.

Patologiko dira orain,  
nire eztul, nire arrausi,  
zuloak argiarekin bazuen,  
zioten,  
hainbeste zerikusi.  
Baina iluntasuna da nagusi.  
Lau pareta,  
bi burusi.  
Bazioten,  
ipsum insanis,  
baina oraindik ez dut,  
argirik entzun,  
ez ikusi.



*Serkialak*



*Martin Loizate  
Sarrionandia*

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Hileta martxa*





*"Olerkarietako poesiaren hileta  
edestea besterik ez zaie geratzen".  
Joseph Ciarola*

Gizon emakume saldoa  
beltzez jantzirik denak  
muinotik datoz  
eta tristeziaren pisuak maldan behera  
bultzatzen ditu.

Hilkutxa bat dakarte andan  
lau gaztek eusten diotelarik,  
lauren pausoak batean doaz  
(martxa militar bat bailitzan).

Emakume batek zapia atera  
eta negar plantak egin ostean  
begiak igurtzi ditu.

Atso zahar bi,  
burua mantelinaz estalirik  
errezoan dabilta  
baina orazioak ez dira  
zerua estaltzen duten hodei beltz eta ilunak  
zeharkatzeko gauza izango.

Hogeita hamabi jo dituzte ezkilek,  
hil kanpaiak dira  
eta laborariak aitzurra albo batera utzi du  
estratan behera doan dolu errenkadari so egiteko.

Eta konturatuko da:  
hilkutxa onak sendoak direla baina  
andan daramatena ez dela hilkutxa ona  
eta gainera ez duela brokatu satinaturik.



Pentsatuko du:  
hilotza estu dagoela hor barruan,  
zerraldoa txikia dela hildakoa zen neurrirako  
eta hankak tolesturik edukiko dituela

Baina, nor daramate hilkutxan?

Hilkutxaren ondotik doaz  
emakume zahar batzu,  
zenbait eskale eta zoro bi.  
Atzerago mozkorrek, terroristak, prostitutak  
Amanda Baker, Minerva Jones,  
eta Spoon Riverreko hilak bizitzaz solasean.  
Bidean aurkitzen duten jendeak debozio handiz  
egiten du gurutzearen seinalea  
euren errua disimulatu nahian edo  
baina heriotzak denontzako du begirada bat.





Gero, hileta martxa Jakov Matvieitxen  
etxe aurretik pasatu denean  
honek biolina jotzeari ekin dio  
eta estrata bazterrean abandonaturik datzan  
bustoaren gainean pausatu den bela beltza mintzatu da:  
"inoiz ez gehiago!".

Bistakoa da ez diotela defuntuari  
hilerrian panteoirik eraikiko,  
lehenago lapur edo iruzurgileren bat egondako  
horma-hobi batean sartuko dutela  
eta enterradoreak sotiltasunik gabe tratatuko ditu  
bere hezur bustiak.

Ez diote epitafiorik idatziko  
eta maitale traketsen batek noizean behin  
edo amaginarrebak domu santu egunez  
eramango dizkio arrosa batzuk.

Baina, nor hil da?

Poesia hil da, hau baizik, deus ez gehiago.



*bertsoak*



*Manex Roman*

*Munitxa*

Irabazlea 11 -12 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Alferraren bertsoak*





Astero astero egunez egun  
ikastolara lanera.  
Matematika, ingelesa, euskara,  
txanela ta gaztelera  
Ikastolako txapa ta gero  
gainera entrenatzera.  
Aste Santua iritsi da ta  
bagoaz oporretara.

Berandura arte lo egin ostean  
hasten naiz planak prestatzen.  
Mendira joan majo sufritud  
baina paisaiaz gozatzen.  
Edo hondartzara, itsas ertzean  
eguzkipean bainatzen.  
Oporretako bizimodua  
nori ez zaio gustatzen.

Aste santua bukatu da ta  
berriro ikastolara.  
Alde ona du, lagun guztiak  
berriz elkartuko gara.  
Alde txarra du, azterketetan  
asko ikasi behar da.  
Baina esperantza ezin da galdu  
laster jatorku udara.



*Lertsoak*



*Ander Sarriugarte  
Garcia*

Irabazlea 13-14 urte bitartekoen sailean  
Kurutziaga Ikastola

*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Lanbideak*



Askotan dau deseroso  
besoa edo hagina,  
beraiek gu sendatzeko  
preparatuta jakina  
euren jantzi zuriek  
nahiz ta eman niri grina,  
itzela da gizartean  
eurek duten eragina,  
minbizia izan al da  
edo eztarriko mina  
esperientzia daukate  
askotan dute egina,  
norbait bizirik egon nahi  
beraien nahi ta ezina  
Mediku barik mundua  
ez zen izango berdina

Danok irakurtzen dogu  
egunkaria tarteka,  
edota entzuten dogu  
irratiko elkarrizketa,  
Burua eukitzen dogu  
berri ta albitez beteta,  
batzutan aurkikuntza bat  
besteetan lapurreta,  
nahiz erreza izaten den  
egitea epaiketa  
Kazetaritzari buruz  
eingo dugu hausnarketa  
Desagertzen direnean  
aldatuko da planeta  
Munduan zer gertatzen den  
ez dugu jakingo eta.



Zikin eta ustelkeriz  
beteta parke zein gela  
eskerrak kalean beti  
poztasunez hor daudela  
nahiz ta ez beti eduki  
diru askogaz xakela  
herriko gune guztiak  
garbi, bejondeizuela  
ez digutela axola  
esaten dute honela:  
ez diet ezer esango  
pobrea naiz ta bestela  
egia esan pena da  
nahiz ta iruditu ergela  
euren arima zikinak  
garbitu ezin direla





Haientzat hain erreza da  
zer egin aukeratzea,  
mediku kazetaria  
edo kaka biltzailea  
edozer lanbide e(g)iteko  
daukate bide librea  
ez nekien txarra zela  
hemen izatea pobrea  
inoiz ez dut ulertuko  
gugan duten umorea  
berriro ere semetxo  
e(g)in beharko da biajea  
*Siriara bueltauko gara  
amaitu zaigu epea*  
Egunen baten aitatzok  
lortuko du lanbidea.  
*Siriara bueltauko gara  
amaitu zaigu epea*  
Nozbait aitak lortuko du  
Onartua izatea.



*Lertsoak*



*Txaber Altube  
Sarrionandia*

Irabazlea 17-18 urte bitartekoen sailean  
Frai Juan Zumarraga Institutua

*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Edurne Zurirenak*





*Doinua: "Bakardadeak" - Beira*

1

Dirudun etxe batean  
Bizi zen Edurne Zuri  
Nahiz ta batzutan urduri  
Karteraren barrenean  
Elurra falta zenean  
A zer nolako orroak  
Barreneko zomorroak  
Zoritxar edo zorion  
Monoa kendu ohi zion  
Aitaren diru zorroak

2

Edurneren ama ere  
Eraman zuen zaldiak  
Orainak ta aspaldiak  
Bide bera dute xede  
Baina aitaren mesede  
Bazen arrainik lakuan  
Edurneri segituan  
Jarri zitzaion piraña  
Zitala bezain liraina  
Ama zenaren lekuan

3

Aitarentzat zen egina  
Neska jantzi ta polita  
Bere plazer, Afrodita  
Ta Edurneren toxina  
Bera baitzen erregina  
Bakearen hegalean  
Legearen magalean  
Ertzaintzan postua zuen  
Ahalik eta altuen  
Narkotrafiko sailean

4

Hain zen andre obediente  
Hain zurrun eta perfektu  
Hain jakintsu, hain korrektu  
Hain polizia agente  
Bazuen bai zer lan bete  
Senargaiaren alaba  
Hartu zuen begitara  
Legea baita lehena  
Giza-balore gorena  
Hargatik kobratzen bada

5

Egunsentiaz batera  
Hiru ertzain, hiru borde  
Beste hiru amaorde  
Heldu ziren etartera  
Aitak prest zuen kartera  
Berrogeina mila euro  
"Disculpenos caballero"  
Legea baita lehena  
Giza-balore gorena  
Hala komeni ezkeru

6

Aitak haserre hutsean  
Lehen zena Afrodita  
Hain deabru ikusita  
Bota zuen bat-batean  
Baina etxea uztean  
Asez botere grina  
Utzi zuen azken mina  
Edurneren bihotzean  
Ta bere mesanotxean  
Hogei gramo kokaina





7

Droga baztertu ezinda  
Hasi zen tiroka mahaian  
Ta zazpigarren arraian  
Jarri zion azken ginda  
Bertan erori zen hilda  
Hala joan zen amagana  
Elur zuriaren dama  
*Ikaratu egin nauzu*  
*Kontatuko al didazu*  
*Beste ipuin bat amama?*



*Lertsoak*



*Iñigo Legorburu  
Arregi*

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean



*julene azpeitia lehiaketa • 2016 urtea*



*Jaiotzerako, heldu*



*Doinua: Amaren bularra (Xabier Lete)*

1

Nagusi bilakatu  
den ume-mokoak  
haurtzarora bueltatzen  
a ze oztopoak!  
Bizitza den oholtzaren  
gaineko fokoak  
argitzen baitizkio  
penak, gorrotoak...  
Agintzen didanean  
neronen kolkoak  
“carpe diem” esanda  
gero, gerokoak!  
Arakatuz tarteka  
barruko txokoak  
heldutasunez bizi  
ditut haur-jokoak.

2

Futbol partida baten  
osteko nekea,  
“jolastu al naiteke?”  
lotsazko eskea,  
txapak, sokasaltoa  
ta patineta...  
haurtzaroko txingorrei  
gaur darien kea.  
Etxea bihurtu da  
denon aterpea  
gailu elektronikoz  
daukagu betea...  
“adreiluzko burbuila”  
ze luxu merkea,  
kalea bihurtzeko  
haurren erbestea.

3

Gutziz maite genuen  
trenbideko pista  
haren gainera jauzi  
eginez aldizka.  
Estropozo eginda,  
eroriz erdizka  
belaunek hartzen zuten  
kolore gorrixka.  
“Normaltasuna” denez  
helduon konkista  
orekan galdu dugu  
bizitzaren txispa...  
Haur irudimentsua  
ez al da artista?  
Desorekan gozatzen  
dun funanbulista!

4

Ezkutaketa, horra;  
jolasik onena  
arauak betetzeko  
gai ez ginenena.  
Aurrez hitzarturiko  
tranpen onarpena  
zen azkar eginiko  
kontaktarena...  
Dena arautzearen  
helduon kondena,  
da denak engainatuz  
bizitzearena.  
Norbera izaten da,  
bistakoa dena;  
ezkutuko tranparik  
agerikoena.



5

Hondartzan bizitako  
une bereziak  
hareazko gaztelu  
artean biziak,  
oroitzen ditut talde  
lanean hasiak  
ta bukatzen zitula  
taldeko “bixiak”...  
Egun, disimulatuz  
gure gabeziak  
norbanakoen gisan  
gaituzte heziak.  
Gazteluak utzita  
hantxe, bereziak  
eraikitzen ditugu  
kanpo-harresiak.

6

Itzalekin jolasten  
jardun ginen, malgu  
noiznahi haiei iheska,  
ta noiznahi zapaldu...  
Sortzen zuten zirrara  
jada pasa zaigu  
baina itzalak bere  
horretan dihardu.  
Norbait izate horrek  
dizdirarik badu,  
denok izan nahi dugu  
famatu, goi-kargu...  
Egun, itzalengandik  
ez gabiltza salbu:  
itzalpean egonda  
beldurtzen gara gu.

7

Lehen, sormenak egiten  
zigunez gainezka  
zirriborrotan bazen  
nahiko sormen extra!  
Etxeko paretetan  
marraztean xextra  
ekiditeko joaten  
ginen gu iheska...  
Marrazteko garaian  
egun, a ze festa!  
gure ezintasunak  
sortzen digu kezka.  
Orain gelditzen dena  
buruan trabeska  
sormen zirriborratu  
bat besterik ezta.

8

Bizitza triste bat den  
xelebrekeria  
normaltzat hartzen dugu,  
ez al da egia?  
Beharko lukeena  
poza, komedia  
bilakatu ohi dugu  
kriston komeria!  
Alaitasun beharrez  
den bihotz eria  
torturatu ohi dugu  
bizitza erdia...  
Azkarregi haztea,  
ze txorakeria;  
helduotan nagusi  
den umekeria!!

